



LABek Industrian egiten duen balantzea eta erronkak

Industriaren diagnostikoa-egoera

Agerraldi honetara deitu zaituztegu, Industria sektoreak bizi duen egoeraz gure irakurketa egiteko, eta ondorengo hilabeteetako erronkak azaltzeko. Azken hilabete eta urteetan krisialdia ekonomikoa atzean utzita dugunaren diskurtsoaren atzean, guk bestelako errealitatea bizi dugu. Batzuk aterako ziren krisitik, egia da enpresak irabazi handiak metatzen ari direla, baina irabazi horiek patronalak beretzat nahi ditu oso osorik.

Medioetan industria 4.0 gorai patzen duten bitartean, industria aurreratuaren marka moderno moduan, industria politika ezaren noraezean itotzen ari zaigu Euskal Herriaren etorkizunarentzat estrategikoa beharko lukeen La Naval ontziola, bere 2.000 langileak barruan dituela. Oraindik ez dakigu Eusko Jaurlaritzak estrategikotzat jotzen duen ontzigintza sektorea etorkizunerako.

Marketingak konpontzen ez dituen gauzak badaude. Esaterako, industria 4.0ren inguruan egin dezaketene propaganda guztiak ezin du estali etorkizuneko industria aurreratu hori prekaritate egoeran dauden langileekin egin nahi dutela, eta honela industriak ez du etorkizunik. Industria aurreratuak lan baldintza aurreratuak behar ditu derrigorrez.

Baina panorama oso bestelakoa da tamalez:

- Emakumeek industrian duten bazterketak estrukturala izaten jarraitzen du, Lan mundurako sarbidea ez da berdintasun egoeran ematen, 10 industriako langiletik 2 baino gutxiago dira emakumeak (%19). Bazterketa ideologikoa, sindikala ematen da lantoki askotan langileak kontratatzean.
- Azpikontratazioa hedatzen ari da, prekarizazioa hedatzeko tresna nagusi gisa. Lehen mailako, bigarren mailakoak eta eskubiderik gabeko langileak sortzen ari dira, elkarren artean lehia dezaten.
- Kontratazioetan diskriminazioa ematen ari da, gazteei lan baldintza okerragoak inposatu nahi zaizkie, erbesteratze ekonomikora bultzatuz .
- Negoziaketa kolektiboan, Espainiako lan erreformak baliatuz negoziazio kolektibo sektorialari uko egiten dio patronalak. Esaterako, pisu handiena duen metalgintzan ez dago eguneratutako hitzarmenik Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan.



LABek emandako erantzuna eta egindako lana

Erasoaldiaren tamaina handia da, eta honi aurre egiteko enpresetan askotan **borrokaren** bidea besterik ez dute uzten enpresariak. Pasa den kurtsoan, 41 enpresetan lanuzte deialdiak egin ditu LABek. Mota guztietako enpresak izan dira, herrialde guztietakoak, hiru hilabetez greban lanpostuen defentsan aritu ziren **Alfako** langileetatik hasi eta pasa den astean, lanuzteak eta greba deialdien bidez hitzarmena lortu duten Arrigorriagako **Talleres Berasategi** enpresa txikiko langileetara.

LABek sindikalismoa birpentsatzeko eztabaidan honen eraginkortasunean hobetzeko ondorio batzuk atera zituen, lan mundua **eraldatzeko**. Ondorio horien arabera, industriako eremuak lehenetsun moduan ezarri dugu langile zatiketari aurre egitea, sektore baztertu eta kaltetuenak erdigunean jartzea eta negoziazio kolektiboari ezartzen ari zaizkion mugak gainditzea.

Ez da bidezkoa dagoen aberastatasun mailarekin, lan munduan langileek pairatu behar dituzten hainbat egoera bizi behar izatea. Lehenetsun horien arabera, enpresaz enpresa langileak antolatzeari ekin diogu, eta hainbat enpresetan langileen lan baldintzak hobetzeko borroka pizteko ekarpena egin du LABek.

Baina honek guztiak ez luke askorako balioko **sindikatu eraginkorra** ez bagina izango. Lantokietan egindako lanaren ondorioz, aldarrikapenak akordio bilakatzeko gai izan gara hainbat lantokietan, 73 akordio lortu ditugu industriako lantokietan. Akordio horiei esker, langileek euren lan baldintzak hobetu ahal izan dituzte.

Akordio horiek KPItik gorako soldata igoerak, lan erreformen kontrako klausulak eta prekaritatearen kontrako neurri ezberdinak jasotzen dituzte.

Badira lanaldi murrizketa jasotzen duten akordioak, **Arcelor Olaberriakoa**, **Bruss** edo **OWLn** bezala. Badira etorkizuneko kaleratzeak ekiditeko enplegu bermea jasotzen duten akordioak, **Teknikerren** edo **Kauxoten** lortutakoak bezala, eta badira errelebu kontratua jasotzen duten kontratuak, **SNA Europen** bezala.

Estatalizazioaren kontrako paro deialdiak egin genituen maiatzaren 30an.

Kontratazio proposamenak egin ditugu hainbat enpresatan. Soldata arrakala salatzen dugu iraunkorki eta emakumeon lan baldintzak hobetzeko ezinbesteko neurriak exijitu ditugu. Horren adibide, **Kybsen** lortutako kontratazio anonimorako eta kontratazioen erdia emakumeak izateko



konpromisoa. Diskriminazioa ideologiko edo sindikalaren aurrean, kontratazio proposamen gardenak aldarrikatu ditugu, **Volkswagenen** edo **Mercedesen** adibidez.

Prekarietatearen inposaketak lehen mailako bilakatu du lanpostu duinaren sorreraren aldarria. Azpikontrata eta ABLEetako langileen lan baldintza, soldata eta egoerak ere enpresa nagusiko langileen garrantzia dutela aldarrikatu dugu. Gero eta gehiago dira ABLEak eta azpikontratazioa mugatu edota debekatzen duten enpresa hitzarmenak, edota enpresa nagusiko langileak azpikontratetako langileen defentsan mobilizatu izana. **CAFen** adibidez, hainbat lanposturen errebertsioa lortu zuten langileek lanuzteen bidez. **Gamesa Aoizen** ABLEak mugatu ditugu, edo **Forjas Iraetan** lehen oinarria jarri dugu 1.500 euroko gutxieneko soldata lortzeko.

Multinazionalen deslokalizaizo mehatxuen aurrean, proiektu industrialen defentsarako eta enpleguaren defentsarako aldarrikapenak egitera eraman gaitu, Gasteizko **BSHko** borrokan egin dugun bezala.

Lan osasuna, tamalez, lehen mailako arazoa da oraindik. Aurten, 29 dira jadanik lan istripuan hildako industriako langileak. Lan osasunaren defentsan borroka eta protesta ekimen ezberdinak egin ditugu, **GSHydro** enpresan adibidez. Hainbat akordio ere lortu dugu langileen osasuna babesteko, **Jema** enpresan adibidez. **Solidus San Andres** enpresan, mutualitateak kanporatu eta osasun zerbitzu publikora pasa ditugu baja arruntak.

Huteskunde sindikalak: LAB indartzen

Huteskunde sindikal garaian sartuak gauden honetan, LAB osasuntsu heltzen da huteskunde sindikaletan, azken urtean ordezkartizan izan dugun bilakaerak hori erakusten du: 2017ko abuztuan ordezkartizaren %19,01 gauen, eta 2018ko abuztuan %19,23ra iritsi gara.

EAEen esaterako, LAB izan da 4 sindikatu nagusien artean gehien igo den sindikatu bakarra industrian, %20,89ko ordezkartiza dugu azken datu ofizialaren arabera.

Nafarroan ere goranzko joera dugu, eta 300 delegatuen langa gainditu dugu, azken urteetako ordezkartizaren igoerarekin jarraituz.

Hego Euskal Herrian %19,23ko ordezkartiza lortu dugu, egun bigarren indarra den CCOOengandik 111 delegatura. Epealdi trinkoari jarri diogun helburua da Hego Euskal Herri mailan industrian bigarren sindikatu izatera hurbiltzea. Erronka oso zaila da, baina uste dugu epealdi amaieran gertu ibil gaitzkeela jasotzen ari garen babesarekin.



INDUSTRIAKO ORDEZKARITZAREN BILAKAERA 2017/07/31-2018/07/31 (azken datu ofiziala)

EAE		2017		2018		BILAKAERA	
LAB	1253	%20,66	1263	%20,89	10		
ELA	2421	%39,92	2394	%39,60	-27		
CCOO	1204	%19,85	1193	%19,73	-11		
UGT	720	%11,87	711	%11,76	-9		
BESTEAK	466	%7,68	485	%8,02	19		
	6064		6046				

NAFARROA		2017		2018		BILAKAERA	
LAB	287	%14,10	299	%14,40	12		
ELA	574	%28,19	574	%27,64	0		
CCOO	488	%23,97	480	%23,11	-8		
UGT	544	%26,72	579	%27,88	35		
BESTEAK	143	%7,02	145	%6,98	2		
	2036		2077				

HEGO EH		2017		2018		BILAKAERA	
LAB	1540	%19,01	1562	%19,23	22		
ELA	2995	%36,98	2968	%36,54	-27		
CCOO	1692	%20,89	1673	%20,60	-19		
UGT	1264	%15,60	1290	%15,88	26		
BESTEAK	609	%7,52	630	%7,76	21		
	8100		8123				

Baina ezin gara datu on hauekin konformatu. Esan dugun moduan, lantokiz lantokiko antolaketa beharrezkoa da prekarietatean oinarritutako industria ereduari aurre egiteko. Hori da langileei egiten diegun eskeintza, hauteskunde sindikaletarako ere bai: aberastasunaren banaketa aldarrikatu eta prekarietatea borrokatzen jarraituko dugu.

Horregatik, langileei hauteskunde sindikaletan parte hartzeko deia, antolatzeko deia egin nahi diegu, legediak babes tresnak kendu dizkien garaiotan, kolektiboki eskubideen defentsa egiteko.



ERANSKINA. LABen ekintza sindikala industrian

Egindako greba eta paro deialdiak pasa den kurtsotik

Convocatorias de huelga y paros de LAB en industria desde el curso 2017/2018.

- | | | |
|--------------------------|------------------------|--------------------|
| 1. Fudike | 15. Foseco | 29. Kelsen |
| 2. Ferrovial | 16. Arcelor Olaberria | 30. Gs Hydro |
| 3. Abb Niessen | 17. Cables y Alambres | 31. Perfil en Frio |
| 4. Caf | 18. Bsh | 32. Cemos |
| 5. Maquinaria Geka | 19. Wec | 33. Vicinay |
| 6. Sammic | 20. Heraclio Fournier. | 34. Ute Aubide |
| 7. Astilleros Balenciaga | 21. Michelin | 35. Industrias Fer |
| 8. Alfa. | 22. Sapa | 36. Tecuni |
| 9. Alfa-Util. | 23. Rothenberger | 37. Gamesa Asteasu |
| 10. Productos Tubulares. | 24. Kelvion | 38. Jaso itsasondo |
| 11. Talleres Berasategi | 25. Rodisa | 39. Audiomic. |
| 12. Tecunni | 26. Olazabal | 40. Ruedas Roar |
| 13. Nervacero | 27. Megatech | 41. Elektra |
| 14. Kelvion | 28. Tubacex | |

Prekariatatearen kontrako dinamikak

Dinámicas impulsadas por LAB contra la precariedad

- | | | |
|------------------|----------------|------------------------|
| 1. GS Hydro | 7. Velatia | 13. Estamcal |
| 2. Michelin | 8. Ute Aubide | 14. Abrasivos Texajax. |
| 3. Caf | 9. Torrespapel | 15. Arcelor Olaberria |
| 4. Ferrovial | 10. Bruss | |
| 5. Forjas iraeta | 11. GsHydro | |
| 6. Alestis | 12. Cemos | |

Lan Osasunaren arloan egindako dinamikak

Dinámicas en materia de salud laboral

- | | | |
|----------------------|------------------------|---------------|
| 1. Isnn | 8. Caf | 15. Mecauto |
| 2. Cables y Alambres | 9. Jema | 16. Mercedes |
| 3. Idesa | 10. Solidus San Andres | 17. La Cabaña |
| 4. Fumbarri | 11. Michelin | |
| 5. Sundundegi | 12. Nemak | |
| 6. Arcelor Bergara | 13. Gamesa | |
| 7. Cinfa | 14. SNA Europe | |



Enpleguaren defentsan eta kontratazio diskriminazioaren kontrako dinamikak

- | | | |
|----------------------|-------------------------|------------------------|
| 1. Kybse | 8. Geysler | 15. Triman |
| 2. Volkswagen | 9. Gamesa Asteasu | 16. Heraclio Fournier |
| 3. Mercedes | 10. Caf | 17. Tekniker |
| 4. Arcelor Olaberria | 11. Fiasa | 18. Kauxot. |
| 5. Bsh | 12. Tubos Reunidos | 19. Abrasivos Texajax |
| 6. Alfa | 13. Productos Tubulares | 20. Fundiciones Urbina |
| 7. Edesa Industrial | 14. Kayaba | 21. Ruedas Roar |

Sindikatu eraginkorra gara: akordio hauek lortu ditugu:

- | | | |
|-------------------|--------------------------|--------------------------------------|
| 1. Rodisa | 27. Talleres Bost | 52. Mecanifran |
| 2. Cometel | 28. Voight | 53. Industrias Gol |
| 3. Haize-Lur | 29. Eles | 54. Teneco Automotive |
| 4. Industrias Fer | 30. Arcelor Olaberria | 55. Teneco Innovacion |
| 5. Norma CIE | 31. Jaso Itsasondo | 56. Plastibor |
| 6. Spool | 32. Torrespapel | 57. Garita |
| 7. Tekniker | 33. Guerra Hermanos | 58. Oñate |
| 8. Bombas Itur | 34. Caf | 59. Fumbarri |
| 9. Biele | 35. Dyf | 60. Estampaciones Bizkaia
Gestamp |
| 10. OWL | 36. Talleres Berasagui | 61. Alga |
| 11. RDI | 37. Kauxot | 62. Estamcal |
| 12. Goi-alde | 38. Laminados Losal | 63. Mear |
| 13. Gkn Zumaia | 39. Sna Europe | 64. Azpiaran Zaldibar |
| 14. Juaristi | 40. Alestis | 65. Rothenberger |
| 15. Sammic | 41. Estampaciones Rubí | 66. Larzep |
| 16. Forjas Iraeta | 42. ABB Niessen | 67. Lamincer |
| 17. Euskabea | 43. Alko Record | 68. Vicinay |
| 18. Elnelat | 44. Transm. la Magdalena | 69. Gs Hydro |
| 19. Ubis | 45. Bruss | 70. Benelli |
| 20. Igepak | 46. Layde | 71. SNA Europe Gasteiz |
| 21. Sapa | 47. Idesa | 72. SNAE Europe Arangiz, |
| 22. Abb Niessen | 48. Arania | 73. Ferrovial Servicios
Michelin |
| 23. Fudike | 49. Wec | |
| 24. Pasaban | 50. Ematec | |
| 25. Tecoplast | 51. Egaña | |
| 26. Ikor | | |